



Arartekoaren ebazpena, 2012ko apirilaren 2koa. Horren bidez, Bizkaiko Foru Aldundiko Kultura Sailari zenbait neurri gomendatzen zaizkio karate modalitatean Eskola Kiloaren Programa hobetzeko.

Aurrekariak

1. Bizkaiko kirol talde batek erakunde honetara jo zuen Bizkaiko Foru Aldundiak Eskola Kirolaren Programan, karate modalitatean parte hartzeko bere kideei eskatzen zizkion betekizunak direla-eta kexatzeko. Azaldu zuenez, eskola adineko bere kirolariak programa horretan inskribatzea eskatu ondoren, Bizkaiko Karate Federazioak erantzun zion esanez, hura izapidetzeko, karateko klaseak ematen zituen begiralearen datuak, Euskadi edo Espainiako Karate Federazioak begiraleari emandako tituluaren kopia eta urte horretako lizentziaren kopia eman behar zituela taldeak.

Taldeak erreklamazioa aurkeztu zuen foru aldundian eta azaldu zion aipatu tituluak diploma pribatuak baino ez direla eta ez daukatela balio ofizialik; hori dela-eta, foru erakundearen eta Bizkaiko Karate Federazioaren artean aipatu programa garatzeko sinatutako hitzarmenetik datorren eskakizun hori ez zen zuzenbidearen araberakoa, eta taldeak hartan parte hartzeko aurkeztutako haurren eskubidea mugatzen zuen. Bestalde, eta hitzarmen horren edukia kaltetutako erakunde interesatua zen aldetik, hura igortzeko eskatu zuen. Halaber, gogoratu zuen, edonola ere, taldean klaseak ematen zituen pertsonak 1975etik zeukala karateko begirale tituluak, hura, bai, ofiziala, eta, haren ibilbide luzean, hainbatetan aurkeztu zituela haren kopiak eta originala Bizkaiko Federazioaren aurrean. Argudiatu zuenez, hori dela-eta, ez zeukan tituluak bere esku, baina aipatu federazioak bazeukan haren berri. Gehiago sakonduz, talde erreklamaziogileak adierazi zuen begiraleak titulu horren kopia eskatu ziola maiz Bizkaiko Federazioari berari, hain zuzen ere. Lortu ez zuenez gero, Euskal Federazioaren aurrean azaldu zuen kasua, eta horrek Bizkaikora bidaltzen zuen berriz, ziotsoz, hark izapidetzen zituelako lurralde horretako kirolarien eskaerak.

2. Aldundiak Eskola Kirolaren atalburuaren 2010-4-22ko idazkiaren bidez erantzun zion erreklamazioari. Han adierazi zuenez, agiria eskatzearen xedea ez zen ezein erakundek eskola kirolaren programan parte hartzea eragozteko, hura ondo burutzea baizik. Zentzu horretan, Federazioaren eskakizuna, erakunde laguntzailea zen aldetik, arestian aipatu hitzarmenak ematen zizkion eginkizunen esparruan kokatu zuen. Euskadiko edo Espainiako federazioak emandako begirale tituluak eman beharri dagokionez, zehaztu zuen erakunde horrek egindako eskola kirolari buruzko Lehiaketa Araudiak behartzen zuela horretara, modalitatearen ezaugarri berezien arabera. Garai batean Espainiako Federazioak talde erreklamaziogilean karateko klaseak ematen dituen pertsonari emandako tituluaren kopia eskuratu ahal izatea izapidetzeko eskaerari dagokionez, foru





erakundearen erantzunaren arabera, Federazioak eta Aldundiak ezin izan zuten egiaztatu hura bazela, eta edonola ere, interesatuak eskatu behar zuten dagokion tituluaren kopia hura eman zion erakundeari. Bukatzeko, Aldundiko Eskola Kirolaren Atalak Berak igorri zion erreklamaziogileari, zortzi egun geroago, posta elektronikoko mezu bat. Han, taldeak agertutako kontuei aipatu dugun idazkian erantzun zitzaiela adierazi ondoren, Bizkaiko Karate Federazioarekin sinatutako hitzarmena igortzeko eskaerari uko egin zion, honakoa argudiatuz: *“dicho convenio es firmado por las citadas partes, y que son éstas, como tales partes, las que cuentan con acceso a la misma”*.

3. Horrela bere erreklamazioari nahi zuten erantzuna eman ez ziola ulertuta, talde erreklamaziogileak Aldundiaren aurrean berretsi zuten kexa; hark Kultura Foru diputatuaren 2010-10-14ko idazkiaren bidez erantzun zion. Han Eskola Kirolaren Atalak sinatutakoari igorri zion, eta erantsi zuten, eskatu titulua eta Bizkaiko Federazioak hura egiaztatu eta eskatzeko duen eginkizuna, aipatu dugun Lankidetzaren Hitzarmenean oinarritzen zirela; hori guztia, Euskadiko kirolari buruzko ekainaren 11ko 14/1998 Legeak eta Euskadiko Kirol Federazioei buruzko urtarrilaren 31ko 16/2006 Dekretuak lurralde federazioei emandako eginkizunen arabera. Amaitzeko, diputatuak adierazi zuten jarduera ondo burutzeko xedatutako tituluek eta beste eskakizunek ez dutela galarazten inongo erakunde eskola kirolean parte hartzea, eta foru erakundearen xedea nahi duten erakunde guztien parte hartzea sustatzea dela. 2011ko urtarrilaren 1ean eta 24an, talde erreklamaziogileak idazki bana igorri zion berriz Bizkaiko Foru Aldundiari, eta hark, bietan, erantzun zion haietan agertutako kontuei aurreko idazki bietan erantzun zitzaiela; hori dela-eta, haien edukiari heltzen zion berriz ere.

Erantzun horiek jasota, 2011ko maiatzean taldeak lehen aldiz jo zuten Arartekoagana, Aldundiko Eskola Kirolaren Atalak aipatu dugun lehenengo idazkiari erantzun zion moduaren aurka kexatzeko, bigarren aurrekarian aipatutako hitzetan. Hori dela-eta, espediente hau zabaldu zen, eta hura izapidetu bitartean, taldeak zenbaitetan eskatu zigun esku hartzeko, adierazi dugunez, foru erakundeak gerora hark igorri zizkion gainerako idazkiei emandako erantzunen aurrean.

4. Arartekoak Foru Administrazioari idatzi zion kexaren berri emateko, eta gure aburuz, hark zekartzan funtsezko lau kontuei buruzko zenbait oharbide egin genizkion: talde erreklamaziogileari karateko eskola kirolaren programetan parte hartzeko eskatzen zitzaion tituluaren eskakizunaren lege oinarria; beste talde eta kirol modalitateen aldean bereizkeriarik egon zenetz; foru erakundearen gardentasuna Bizkaiko Karate Federazioarekin horretarako sinatutako hitzarmenen berri ematerakoan; eta talde erreklamaziogileak aurkeztutako begiralearen tituluaren berri izatea. Horiei guztiei buruzko argibideak eta zeukan iritzia emateko eskatu genion.





Halaber, aldundiari Euskadiko Karate Federazioak 2010eko uztailean aipatu begiraleari igorri zion idazkia helarazi genion; izan ere, euren garrantziagatik eta eman zituen iturriagatik, agertutako lehenengo eta azken kontuei buruz saihestezinak generitzen datu bi zeuzkan:

- Euskadi eta Bizkaiko federazioetan tituluaren berri izateari dagokionez, honakoa adierazi zuen zehazki: *“Respecto a tu título decirte que por la documentación que obra en la Federación Vasca y la que pude conocer en la Vizcaína, soy consciente de que estás en posesión del título de Monitor”*. Jarraian, pertsona horri ezarritako zehapen baten berri eman zuen: hain zuzen ere, gaitasungabetzea dela-eta, karateko begirale izaera galdu zuen, eta Kirol Kontseilu Gorenak zehapen horren erabateko deuseztasuna ebatzi zuen. Dioenez, epaitegiek deuseztasun hori berretsi zuten, eta horren guztiaren berri izan zuten Bizkaiko Federazioan bertan, garai hartan hura haren lehendakariordea baitzen; dioenez, federazioaren egoitzan fisikoki ikusi zuen titulua. *“Aun así –bukatzen da-, y para que conste fehacientemente, consultados nuestros archivos, figura que tu título de Monitor fue obtenido el 17 de julio de 1975, y tu Cinturón Negro Primer Dan con el nº 99, fue expedido el 6 de octubre de 1973”*.
 - Titulu batzuk eta besteak ofizialak izateari ala ez izateari dagokionez, taldeko begiraleari igorritako idazkiak honakoa dio: *“Respecto a la oficialidad de tu Título, tanto el Técnico de la Escuela Vasca del Deporte como el Jefe de Servicio de Coordinación de Enseñanzas Deportivas del Consejo Superior de Deportes son muy claros en su respuesta. Por la fecha en la que lo obtuviste y Órgano que lo expidió (Delegación Nacional de Educación Física y Deportes), tu titulación es oficial y tiene validez por sí misma. Las formaciones realizadas por las federaciones, al no tener validez académica deben presentarse para su homologación o convalidación si se pretende acceder a las titulaciones promovidas por la Escuela Vasca del Deporte”*.
5. Administrazioak 2011ko urrian erantzun zuen. Han, erakunde honek agertutako kontuei ondoren zehaztuko dugun bezala heldu ondoren, Kultura Foru diputatuak amaitu zuen esanez bere Saila prest zegoela taldearekin batzeko, xedatutako titulu eta eskakizunen esparruaren baitan, eskola kirolean parte hartzeari lotutako edozertaz hitz egiteko.

Eskatutako hitzarmenari dagokionez, foru aldundiak talde erreklamaziogileari haren kopia ematea onartu zuen, Arartekoak egindako hausnarketari kasu eginez, hura interesatua zen aldetik. Hala ere, erakunde berak ondorengo hitzarmenen kopia eskatu zuenean, berriz ezetsi zuten eskaera, eta hori dela-eta, erakunde honek berriz esku hartu behar izan zuen gaiari buruz; horren ondorioz, foru erakundeak berriz zuzendu zuen bere irizpidea eta eskatutako agiriak helarazi zizkion eskatzaileari.



6. Edonola ere, emandako erantzunetik ondorioztatzen zen aldundiak ez zeritzola egokia Arartekoak, bere kirol zuzendariaren begirale tituluaren kopia lortzeko talde erreklamaziogileak egindako alferreko ahaleginak ikusita, iradoki zion beste jarduketa bat burutzeari: emandako agirien arabera, titulu hori 1975az geroztik bazela kontuan hartuta, hark berak lor zezala Espainiako Karate Federaziotik Bizkaikoaren bidez, edo hari eska ziezaiola taldeak hamar urte lehenago, bertan federatzeko, eman ziola zioen kopia. Horren ondorioz, Arartekoak, ondore horietarako, Euskadiko Karate Federazioaren laguntza eskatu zuen, eta haren lehendakariak aipatu titulua bazela berretsi zuen, hala frogatzen zuen Espainiako Federazioaren ziurtagiria igorri zigun, eta berehala eskatu zion hari horren kopia, erakunde honetara helaraziko ziola ziurtatuta.

Agiriak jasota, eta interesatuari eman ondoren, Arartekoak ebazpen hau eman du kexa eragin duen administrazio jarduketari buruz, honako oharbideetan oinarrituta:

Oharbideak

1. Espediente hau izapidetu ahala, Arartekoak kexa jarri zuen taldearen zenbait idazki jaso ditu. Haietan, foru aldundiak, azaldu bezala, berak zuzendutako erreklamazio eta eskabideei emandako erantzunen aurka egin du protesta. Edonola ere, erakunde honen aburuz haiek guztiek dakartzaten gertaerak eta arrazoiketak kexa bera dira eta, gure iritziz, laugarren aurrekarian aipatu ditugun lau kontuen gainekoak dira: talde erreklamaziogileari karateko eskola kirolaren programetan parte hartzeko eskatzen zitzaion tituluaren eskakizunaren lege oinarria; beste talde eta kirol modalitateen aldean bereizkeriarik egon zenetz; foru erakundearen gardentasuna Bizkaiko Karate Federazioarekin horretarako sinatutako hitzarmenen berri ematerakoan; eta talde erreklamaziogileak aurkeztutako begiralearen tituluaren berri izatea.

Bestalde, Administrazioak kexen bidez aurkeztu zirela jakin dugun taldearen idazkiei erantzuten dienean, arrazoiketa ildo berari heltzen dio, funtsean, kontu horiei guztiei buruz agiri bitan adierazi zuenari, alegia: 2010-4-22an Aldundiko Eskola Kirolaren atalburuak sinatutakoan, eta Kultura Foru diputatuaren 2010-10-14koan. Horregatik guztiagatik, erabaki dugu, administrazioaren zenbait jarduketari lotuta eskatu bazen ere, Arartekoaren esku-hartzeak aipatu kontuei era bateratuan heldu behar ziela, eraginkortasunik handiena lortzeko, bai bitartekaritza egiteari bai herri-botereei neurriak gomendatzeari dagokienez.

2. Zalantza barik, administrazioak bere eginkizunak betetzeko behar dituen ahalmenen esparruan sartzen dira kontu horiei guztiei buruz Bizkaiko Foru Aldundiak hartutako erabakiak. Hortaz, erabaki horiek erakunde honen aurrean zalantzan jarrita, gure esku-hartzeak xede bi dauzka:





- alde batetik, zuzenbidearen araberakoak diren egiaztatzea, zentzu honetan: administrazio ekintza oro Legeak eman eta aldi berean mugatzen dion boterearen erabilera da. Beraz, ez da nahikoa egiaztatzea haiek hartzeko eskumena benetan Aldundiari edo, haren eskuordetzearen bidez, Bizkaiko Karate Federazioari zegokiela. Haien edukia legeari egokitzen zaion ere ezagutu behar da, hots, erakunde erreklamaziogileak eskatzen dituen eskubidean noraino dauden ordenamenduak babestuta eta, ondorioz, noraino sortzen zioten administrazioari hark eskatzen zuenaren arabera jardun beharra.
- bestetik, herritarrek zerbitzu publikoak berdintasunean eskuratzea errazteko jardunbide egokiak sustatzea, zuzenketak gomendatuz edo erreklamazioa zuzenbidean baloratu ondoren beharrezko agertzen diren ekimenak proposatuz.

Kexa jaso duen jarduketa zentzu horietan okerra edo hobetzeko modukoa izan litekeen ebazteko, 2010eko apiril eta urriko idazki biak hartu behar ditugu erreferentzia, foru erakundeak haietako arrazoiketetara jotzen baitu, bai talde erreklamaziogilearen bai Arartekoaren aurrean, jarduketa ontzat emateko. Biek ebatzi dute herritarren berariazko eskaera bat, eta hartan osagai bik egiten dute bat: gaiari dagokionez, Aldundiak arlo horretan bere eginkizunak betetzeko darabilen programa batean –eskola kirolarenean- parte hartzeko betekizunak dira; erakunde eskatzaileari dagokionez, bere jarduerak eta estatutuko xedek ikusita, interesatua da, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legeko 31. artikulua dioenaren arabera.

3. Lege horren lehenengo eskakizunari jarraituz, foru aldundiak arrazoituta erantzun behar zien talde erreklamaziogileak agertutako kontu garrantzitsu guztiei. Horri dagokionez, administrazioak gai bi utzi zituen heldu barik bere erantzunean, Arartekoak foru erakundeari igorritako idazkian adierazi zion bezala:
 - a. Taldeak zalantzan jarri zuen Aldundiak, Eskola Kirolaren Programan parte hartzeko, tituluei buruz ezartzen dituen betekizunen lege. Argudiatu zuenez, ziurtagiri horiek ez dira ofizialak, eta ez dute beste federazio edo elkarte pribatuek eman litzaketen tituluek baino prestaketa hobea bermatzen; beraz, ez dago lege oinarririk haiek eskatzeko, are gutxiago adingabeei ondorio hain larriak ekartzeko.
 - b. Bestalde, adierazi zuen titulu horiek ez zirela eskatzen programa horretan taekwondo modalitatean parte hartzeko, ondore horietarako, haren ezaugarriek karatearenekin batere alderik izan ez arren. Horren ondorioz, tratamendu bereizi horren zioaz galdetu zuen, diskriminatzailea baitzeritzon.





4. Azken alderdi horri dagokionez, foru aldundiak honako hau erantzun dio Arartekoari: "hay que tener en cuenta que tanto el convenio como la normativa concreta que regula el deporte escolar en cada modalidad es distinto. Los conceptos organizativos, técnicos, de calendario o de competición son aspectos que se pactan entre la Administración y cada una de la Federaciones precisamente porque, aunque haya disciplinas similares, las direcciones técnicas de cada federación prefieren diferentes alternativas para ordenar su función pública delegada, sin que pueda apreciarse discriminación alguna. Existiría discriminación, a nuestro entender, si al Club XXX se le exigiera algo distinto a lo que se les exige a otras entidades que deseen participar en la modalidad de karate". Erakunde honen iritziz, erantzuna arrazoizkoa da, ziurtatu digunez, baldin eta talde erreklamaziogileari eskatzen zaion titulua programan, karate modalitatean, parte hartzea eskatzen duen beste edozein erakundek eman behar duen berbera bada.

Aipatutako lehenengo gaiari dagokionez, ulertzen dugu administrazioak, haren erantzunean, ez duela erakunde honek, Eskolako Kirola Programan eskatzen den titulazioa exijitzeko legezko oinarriari buruz galdetu zuenean, mahaigaineratu zuen arazoa jorratzen. Aldundiaren erantzunak exijentzia hori barne hartzen duen foru dekretua islatu zuen, bai eta Bizkaiko Karate Federazioarekin sinatu zuen lankidetzaren hitzarmenean dagoen kontu horren gaineko xedapena ere. Modu berean, aipatu du, 2010-10-14ko idazkian adierazi bezala, hitzarmen horiek sinatzea hirugarren aurrekarian aipatu dugun araudian lurraldeko federazioei esleitu zaizkien lankidetzako funtzioen testuinguruaren barruan dagoela. Azkenik, kexak dioena ukatu du, hau da, baldintza hori exijitzeak adingabeengan eragin larria duenik; izan ere, kexagileak inskribatu nahi zuen adingabeak *"podría haber obtenido acomodo en cualquier otra entidad participante en la modalidad de karate de su mismo municipio, o el propio Club podría haber inscrito a otra monitora o monitor que sí pudiera acreditar su condición"*.

Hortaz, gure iritziz, erantzunaren ondoriozko arazoak bi dira:

- Alde batetik, erakunde honek ez ditu zalantzan jarri aldundiak Bizkaiko Karate Federazioari egindako aginduaren oinarriak, ezta aipatu dugun exijentzia dagozkion foru edo federazioaren xedapenetan jasota dagoela ere. Exijentzia horren baliozkotasuna da, gure ustez, eztabaidagarria dena, ez eskumenei lotutako arrazoiak direla-eta, baizik eta edukiari dagokionez. Hau da, aldundiak Eskolako Kirola Programaren garapen egokia bermatze aldera, parte hartzen duten klubei baldintza jakin batzuk bete ditzaten eskatu ahal die baina baldintza horiek zeintzuk izango diren zehaztea, bai modu zuzenean egiten bada, bai federazioaren esku utziz egiten bada, ezin da hautazkoa izan: adierazitako helburua betetzeko egokiak izan behar dira eta legearekin bat etorri behar dira, bereziki, eskolako kirolaren arloan autonomia erkidegoko xedapenei egokitzuz. Horren inguruko araudiaren garapenak eta gauzatzeak arlo horretako foru eskumenak osatzen dituzte,



Euskal Autonomia Erkidegoko kirolari buruzko ekainaren 11ko 14/1998 Legearen 5. artikularekin bat eginez.

Baldintza horien baliozkotasun-testa behin azalduta, aldundiak aipatu duen araudia ezin da sekula arrazoia izan; askoz jota, zuzenbidearekin bat etortzearen ondorioa izan daiteke. Arartekoak doikuntza hori hausnartzeko aukera iradoki zuen aipatutako ekainaren 11ko 14/1998 Legeak, eskolako kirolaren arloan, garatzen duen uztailaren 1eko 125/2008 Dekretuarekin bat eginez. 15. artikuluan kirol federazioek –hitzarmen bidez-, eskolako kirolari lotuta, burutu ditzaketen administrazio izaerako funtzio publikoak aipatu ostean, aipatutako dekretuak, 25. artikuluan, eskolako kirolaren arloan, zuzendaritza, programazio, plangintza, koordinazio, kontrol, ikuskapen eta antzerako funtzioak gauzatzeko beharrezkoak diren titulazioak ezarri ditu. Ulertzen dugu manu hori Eskolako Kirola Programan izena ematea arautzen duen foru eta federazioaren araudiaren gainean proiektatu behar dela; izan ere, legezkoa denez, horren bidez bermatu nahi da parte hartzen duten klubek dagokion kirol modalitatea irakasteko behar bezala prestatuta dauden monitorea dituztela.

Arazoa da, araudi horrek ez duela inolako titulaziorik barne hartzen karateko modalitatean baina programan parte hartu nahi duen klubeko monitoreari soilik pribatuak diren federazio-titulu jakin batzuen jabe izan dadila exijitzen dio, baliozkotasun akademiko ofizialik ez duten arren. 2010eko uztaila idazkian (ebazpen honetako laugarren aurrekarian jasotakoa), Euskal Karate Federazioko presidentek hala kalifikatu ditu. Halaber, idazkian onartu du, horiek ez bezala, erreklamazioa aurkeztu duen klubeko monitorea duen titulua izaera ofiziala izateaz gain, berezko baliozkotasuna duela.

Edonola ere, politika publikoetan hobekuntzak proposatzeko dugun helburua dela-eta, puntu honetan ezin dugu kexa ebatzi eta egin dezakegun gauza bakarra kontraesan hori agerian jartzea da. Gure ustez, kontraesanaren jatorria, kirol arloko titulazioei dagokienez, gaur egungo eszenatokiaren konplexutasuna da. Zentzu horretan, jakin badakigu botere publikoak ahaleginak egiten ari direla prestakuntza eta akreditazio profesionalen sistema baten eratze prozesuan aurrera egite aldera. Bertan, titulazio eta prestakuntza guztiak jasoko lirateke, bai prestakuntza azpisistema formalaren bidez lortutakoak, bai formala ez den sistema edo kirolaren praktikaren ondoriozkoak. Hala, maila desberdinetarako beharrezkoak diren eskumenak, horiek lortzeko beharrezkoak diren eduki akademikoak eta praktikoak eta maila horietako bakoitzera sartzeko betekizunak behin definituta, homologazioen, baliokidetasun profesionalen eta modalitate eta/edo titulazio bakoitzaren baliozkotzeen sarea ehundu ahalko da. Karate modalitatea ez da oraindik puntu horretara heldu, Kiroletako Goi-mailako Kontseiluaren presidentearen 2011ko ekainaren 29ko ebazpenak, karate kirol modalitateko prestakuntza plana argitaratu duenak, goi-mailako kiroletako teknikaria tituluaren "baliokideak" izan daitezkeen titulazioen edukia argitzen lagundu badu ere.





Hori guztia kontuan hartuta, erakunde honen aburuz, ondorioztatu daiteke zalantzan jarri den araudiari aurpegiatu ahal zaiona ez da aipatutako federazio-tituluei eman dien baliozkotasuna, klub batek Eskolako Kirola Programan parte har dezan ahalbidetzeko, baizik eta horretarako esleitu dien eskusibitatea. Hortaz, beharrezkotzat jo dugu klub batek aipatutako programan izena emateko aukera eduki dezan behar dituen titulazioen zerrenda luzatzea. Horretarako, eskolako kirolari buruzko uztailaren 1eko 125/2008 Dekretuaren 25. artikulua jasotzen dituenak erreferentziatzen hartu behar dira, bai eta gaur egun dauden prestakuntza eta akreditazio bide guztiak sistema koherente batean biltzeko abian dagoen prozesua ere.

- Bestalde, ezin dugu bat egin aldundiak, aipatutako erantzunaren azken hitzartean, erabili duen logikarekin; izan ere, adingabeari eragindako eragozpenari dagokionez, baieztatzen du saihestu ahal zela beste erakunde batean izena emanaz edo erreklamazioa aurkeztu duen erakundeak beste pertsona bat monitore gisa jarri izan balu. Kexak hizpide duen administrazioaren jardueraren ondorioz, adingabe batek ezin izan zuen nahi zuen klubarekin Eskolako Kirola Programan izena eman. Klub horretan bere monitoreak lan egiten zuen. Hortaz, jarduera hori baloratzerakoan, alde batera utzi behar da beste klub edo monitore batzuekin izena emateko aukera daukala. Abiapuntutzat hartu behar dugu berak hautatu duen klubarekin izena emateko eskubidea duela, betiere, ez badago hori galarazten duen legezko arrazoirik. Beraz, aztertu behar duguna, zuzenbidearekin bat eginez, zalantzan jarri den oztopoaren oinarria da; bestela, ondorioztatu beharko genuke inskripzioa ukatzeak, modu bidegabean eta masiboan egiten bada ere, ez diela eragozpenik eragingo klub horien bazkideei, betiere, eraginik jaso ez duen erakunde edo monitore bakar bat dagoen bitartean. Izan ere, ukapena jaso ez duenarekin parte hartzeko aukera dago.
5. Bizkaiko Karate Federazioaren eta Bizkaiko Foru Aldundiaren artean sinatutako hitzarmenari dagokionez, aldundiak Arartekoari emandako erantzunean erakunde honek egindako planteamendua onartu da, hau da, erreklamazioa aurkeztu duen klubak horretarako eskubidea daukala 30/1992 Legearen 31.1. artikuluan ezarritakoan interesa duen heinean. Hori dela eta, erakunde horri ordura arte ukatzen zion hitzarmenaren kopia bidali dio, Eskolako Kirola ataleko buruaren gutun batekin batera. Bertan, zera azaltzen da: *“(Bizkaiko Foru Aldundiko Eskola Kiroleko Atalak) gogorarazten dizue testuaren zatiak helarazi zaizkizuela hainbat gutunetan, eta Hitzarmenaren eduki literala zein den adierazi zaizuela, eskola kiroleko programako parte hartzearen inguruan.”*

Foru erakundearen erabaki hori modu positiboan baloratu behar dugu, gardentasunaren arloan ordura arte mantendu duen politika zuzendu baitu eta ez du horretan sakondu, aipatutako gutunak dioten moduan: ezin dugu alde



batera utzi gutuna sinatu duen Eskolako Kirola ataleko buruak berak, Ararteko erakundearen esku-hartzearen ostean onartu duen eskaera ukatu zuenean oinarritzat jo zuen planteamendua gardentasun printzipiotik erabat urruntzen zela, emandako arrazoia hitzarmena bakarrik sinatu zuten alderdiek ikusi ahal zutela baitzen.

Kontraesan hori agerian uzteko ikusten dugun arrazoia da horrek azaltzen duela, gure ustez, erreklamazioa egin duen klubari ezagutu nahi zuen hitzarmena bidali zitzaioela, eta halere, klubak gerora egindako eskaerak, hurrengo bi denboraldietako hitzarmenak jasotzekoak, ukatu egin zizkiola Burutza berak. Hitzarmenak bidaltzeari uko egiteko eman zitzaion argudioa izan zen lehiaketaren araudia federazioaren webgunean ikus zezakeela. Horren ondorioz, erakunde honek aldundiari gogorarazi behar izan zion, berriro ere, hitzarmena ez dela partikularren arteko akordio pribatua, baizik eta gai honetan politika publikoak garatzeko antolatutako tresna. Horrenbestez, tresna hau gardentasunaren printzipioren mende dago, administrazio-ekintzak, orokorrean, berezkoa duena eta (izatez administrazio kontratua ez den arren) administrazio kontratazioak, zehazki, berezkoa duena. Horrenbestez, ulertu behar dugu edukia jendeak ikusteko moduan egon behar dela, nahiz eta ez den nahitaezkoa probintziako aldizkari ofizialean argitaratzea (30/1992 Legearen 13.3 artikuluan azaltzen denez). Erakunde erreklamatzailerak argitalpen hori exijitu zuen, eskumenen eskuordetzea zelako: gure ustez, ordea, manu hori ez dagokio hitzarmena argitaratu beharrari, baizik eta eskuordetze hori azaltzen duen foru eta autonomi araudiari. Erreklamazioa egin duen klubak, nolana ere, oso-oso ezagutzeko eskubidea zeukan, interesduna zen aldetik, eta ez bakarrik dagokion inskripzioari edo lehiaketari buruzko araudia. Hori ukatzea, beraz, administrazioaren funtzionamendu okerra izan zen. Bere zuzenketa jakinarazi zitzaigun eta gero, oker hori errepikatu zen. Esan beharra dago, hala ere, Diputazioa azkar aritu zela erakunde honekin lankidetzan, akatsa berriro ere konpontze aldera. Errepikatuko ez delakoan gaude, beraz.

6. Azkenik, klub erreklamatzailerak (aurreko guztia gorabehera) bere begiraleak beharrezko titulazioa zeukala frogatzeaz aritu behar dugu.

Aldundiak gai honetaz azaldu zuen ez berak ez Bizkaiko Karate Federazioak ezin izan zutela frogatu titulu hori existitzen zenik, eta nolana ere interesdunak kopia eskatu behar ziola jatorrizko titulua eman zion organoari. Foru erakundeari jakinarazi genion planteamendu hori, gure ustez, bi irizpiderekin kontrastatu beharra zegoela:

- Batetik, administrazioak beste administrazio batzuekiko harremanetan elkarlana eta lankidetzaren printzipioak izan behar ditu irizpide, eta bere jardunean, eraginkortasuna eta herritarrei zerbitzatzea. Ildo berean, aldundiari laguntza eskatu genion, jakiteko Bizkaiko Federazioaren funtzioen artean lurralde honetako kirolariek gai honetan egiten dituzten



eskaerak izapidetzea dagoen, bere euskal homologoak klubari adierazi zionez.

- Bestalde ekainaren 22ko 11/2007 Legeko 6.2 b) artikulua ezartzen du *"Herritarrek ez dute herri administrazioak dagoeneko bere esku duen datu eta agiririk aurkeztu beharrik. Herri-administrazioak bitarteko elektronikoz balia daitezke informazio hori eskuratzeko..."*. Herritarren eskubide hori 30/1992 Legeko 35 f) artikuluan ere badago, oro har.

Aldundiak ez dio erantzun Bizkaiko Federazioaren funtzioei buruz egin dugun galderari. Adierazi du, nolahi ere, dokumentazio hori eduki gabe, kasu honetan ezin dela, erakunde honek iradoki zuen bezala, 30/1992 Legearen 35 f) artikulua aplikatu (artikulu horrek dio herritarrek eskubidea daukatela administrazio jarduleak dauzkan dokumentuak ez aurkezteko). Era berean, ulertu du administrazio elektronikorekiko harreman bat ez denez gero, ezin dela aplikatu aipatu dugun beste manua, alegia, ekainaren 22ko 11/2007 Legea (beraren 6.2. b) artikulua administrazio publikoen esku dagoen dokumentazioa aurkeztetik salbuesten du). Horregatik, esan digunez, ulertzen du erreklamazioa egin duen klubari eskatu ziola aipatutako tituluaren kopia lortu dezala, horretarako Espainiar edo Euskal Federazioari eskaera eginez.

Jokabide honekin, aipatutako printzipioen argitan, erakunde hau ez dago ados. Argi dago hau ez dela administrazio elektronikorekin kasu bat, baina horri buruz egin genuen aipuak gai hau bere testuinguruan kokatu nahi zuen: administrazioak, jardunbide onen bidean, jakin behar dituen inguruabarrak egiaztatzeke eta herritarrek politika publikoak garatzen dituzten programetan parte hartzeke behar dutena egiaztatzeke, beharrezkoa bada, modu proaktiboan jardutea gero eta garrantzitsuagoa da. Gai honetan, ezin dezakegu ahaztu erreklamazioa egin zuen klubak ez zuela soilik alegatu karate irakasleak, zenbait urtez federazioarekin izandako auzietan, federazioaren aurrean jatorrizko titulua eta hainbat kopia aurkeztu behar izan dituela. Tituluaren kopia, exijitu zitzaion arren, zergatik aurkeztu ezin zuen azaltzeaz gain, laugarren aurrekarian zehaztu dugun dokumentazioa aurkeztu zuen. Erakunde honek administrazioari berriaz azaldu zionez, dokumentazio horrek ez zuen bakarrik titulu horren existentziari buruzko arrazoizko zalantza oro argitzen: horrezaz gain, azaltzen zuen zergatik zen arrazoizkoa jatorrizko titulua edo kopia Bizkaiko Karate Federazioan zeudela pentsatzea eta, federazioak, nolahi ere, titulu horren berri jakin behar zuela. Federazio horrek, hitzarmenaren ondorioz foru aldundia eskuordetuz jarduten zuenez, tituluak aurkeztea exijitzen zuen. Horregatik, "administrazio jardule" zen federazioa, ondorio hauetarako.

Ondorioz, kexan sorrarazi duen jarduketan alderdi hau baloratzeko garrantzitsua dena ez da interesdunak Espainiar Federazioari tituluaren kopia eskatu ahal zaion edo ez: benetako auzia da zehaztea foru aldundiak behar bezala jardun zuen, eraginkortasunaren, hurbiltasunaren eta herritarrentzako zerbitzuaren irizpideak betez. Izan ere, aldundiak bazekien herritar batek titulua eskatu zuela federazioaren bideetatik eta ez ziotela eman, eta aldundiak bazekien dokumentazio horren berri, baina ez zuen kontrastatu Bizkaiko Federazioak



esandakoarekin (hau da, tituluaren berri ez zekiela). Hori egin ordez, interesdunari esan zion, eta erakunde honi errepikatu zuen, interesatuak lortu behar zuela titulua, eman zuen erakundeari eskatuz. Erakunde hori, aurkeztutako dokumentazioaren arabera, ordurako ez zen existitzen, titulua 1975ean eman zuen erakundea, "Gorputz Heziketako eta Kiroletako Ordezkaritza Nazionala", desagertua baitzegoen.

Erantzuna ezezkoa izan behar da. Honelako egoera batean, aipatutako printzipioak kontuan izanik, uste dugu egokiagoa litzatekeela ondoko jarduketa hauek egitea: eskaera jaso zuen administrazioak berak eskatu behar lioke Espainiako Karate Federazioari tituluaren kopia; administrazio horrek gauza bera egin behar luke Bizkaiko Federazioan, eta aurkeztutako dokumentaziotik ondorioztatzen denez, interesdunak administrazioari aurkeztu behar izan zizkion espedienteetako batzuk eskatu; eta gauza bera EAeko federazioarekin, ofizialki esan baitzuen bazekiela irakasle hori begirale tituluduna dela. Bestalde, jarduketa hau ez zen bereziki astuna denborari edo energiari dagokienez: seigarren aurrekarian azaldu dugunez, nahikoa izan zen telefono dei bat Euskal Karate Federazioak bere artxiboetan zeukan tituluaren kopia bat izapidetzeko eta Arartekoari bidaltzeko. Titulu horren berri bazeukan Bizkaiko federazioak, Euskal Federazioko lehendakariak ziurtatu zigunez. Horrenbestez, uste dugu Bizkaiko Federazioaren jarduna (eta horrenbestez, foru aldundiarena) ikuspegi honetatik administrazioaren funtzionamendu okerra izan zela.

7. Administrazioak, bestalde, ez zion erantzun azaldu genion azken gaiari. Hau da, Aldundiko Eskola Kiroleko atalburuaren eta Kulturako foru diputatuaren idazkietan aurkaratzeko zuzenbidean aurreikusten diren bideak aipatu behar zituztela, Administrazio Publikoen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 89.3 artikulua xedatzen duenez. Lehenengo aurrekarian jasotako eskaera, erreklamazioa egin duen klubak egin, ebatzi zuten neurrian, berriro aipatu behar dugu gaia, eta ondorioztatu behar dugu arlo honetan ere administrazioaren jarduna hobea izan litekeela.

Horregatik guztiagatik, gomendio hau egiten dugu, otsailaren 27ko 3/1985 Legeak -erakunde hau sortu eta arautzekoak- 11 b) artikuluan ezarritakoaren arabera:

52/2012 GOMENDIOA, apirilaren 2koa, Bizkaiko Foru Aldundiko Kultura Sailari egina

1. Eskola Kiroleko Programan izena emateko zenbait betekizun daude, zilegi direnak. Betekizun horien bidez ziurtatu nahi da parte hartzen duten klubek dagokien kirola irakasteko behar bezala prestatuta dauden begiraleak dauzkatela.



Hala eta guztiz ere, esan behar dugu gai hau karatearen alorrean arautzen duen foru eta federazio araudia ez dela egokia, aintzat hartzen dituen ziurtagiri bakarrak euskal eta espainiar federazioak emandakoak diren neurrian. Araudia aldatu behar da, klub bat programa horretan sartu ahal izateko titulazio kopurua gehitzeko, Eskola Kirolari buruzko uztailaren 1eko 125/2008 Dekretuaren 25. artikulua erreferentzia gisa hartuta, eta gaur egun dauden prestakuntza eta ziurtatze bideak, sistema koherente batean, artikulatzeko egiten ari den prozesua kontuan izanik. Era berean, uste dugu Kirolen Kontseilu Gorenaren Lehendakaritzaren 2011ko ekainaren 29ko ebazpena, karatearen prestakuntza plana argitaratu zuena, nahiko argigarria dela, kiroleko goi teknikari tituluaren "baliokide" izan daitezkeen titulazioen edukiari buruz.

2. Bizkaiko Karate Federazioak, Bizkaiko Foru Aldundiak eskuordetuta, hartu zuen erabakia, erreklamazioa egin duen klubari programa horretan izena ematea ukatu ziona, administrazioaren funtzionamendu okerra izan zen. Izan ere, erabaki hori titulazio bat ez aurkeztean oinarritu zen, baina titulazio horren berri eduki behar zuen eta erraz egiaztatu ahal zuen. Bestalde, kasuaren inguruabarrak kontuan izanik, titulazio horren kopia izapidetzeari uko egitea ez zetorren bat administrazio ekintzak eduki behar dituen eraginkortasunaren, hurbiltasunaren eta herritarrentzako zerbitzuaren printzipioekin. Beraz, etorkizunerako zuzendu behar da.
3. Foru aldundiak kirol federazioekin gai honetan sinatzen dituen hitzarmenak ez dira alderdien arteko akordio pribatuak, baizik eta politika publikoak garatzeko antolatzen diren tresnak. Horrenbestez, tresna hauek administrazio jardunaren berezko gardentasun printzipioaren mende daude. Haien eduki osoa, beraz, publiko orokorraren esku egon behar da, eta zehazki, beren eskubide edo interesak hitzarmen horien xedapenen eragina jaso dezaketen pertsona eta erakundeen esku.
4. Azkenik, errepikatu behar dugu administrazioak ematen dituen honelako ebazpenek beraiek aurkaratzeko zuzenbidean dauden bideak aipatu behar dituztela, hala agintzen baitu Administrazio Publikoen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 89.3 artikulua.

